

Egoera ekonomikoa eta Merkatuak ASTEKO LABURPENA

2019ko uztailaren 8tik 12rako astea

➤ INGURU MAKROA:


- ❖ ASTEKO DATUEN PODIUMA
- ❖ KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

➤ ASTE HONETAN MERKATUETAN

➤ GURE IKUSPEGIA

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisia


Euroguneko industria-ekoizpena % 0,9koa izan zen maiatzean, aurreko hileko -% 0,4aren ondoren. Frantziako datua azpimarratu behar da, aurreko % 0,5etik % 2,10era igo baitzen. Alemaniak, bestalde, hazkunde arina izan zuen (% 0,3), baina aurreko hilarekin alderatuta (-% 2), hobera egin zuen.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisia egiteko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

EUROGUNEA: SENTIX INBERTSIOGILEAREN KONFIANTZA



Datuaren analisisia


Euroguneko inbertsiogileen konfiantza are gehiago ahuldu da uztailean. **Sentix** ikerketa-taldeak esan zuen euroguneko inbertsiogileen bere konfiantza-indizea -5,8ra erori dela uztailean (2014tik izan den daturik apalena), aurreko hileko -3,3 puntuetatik behera, eta analisten 0,1eko aurreikuspenen oso azpitik.

Adierazlearen azalpena

Sentix inbertsiogilearen konfiantza adierazle garrantzitsu bat da, Euroguneko jardura ekonomikoan inbertsiogileek daukaten konfiantza-maila neurtzen baitu. Hilero prestatzen du Alemaniako Sentix enpresak. 3.100 inbertsiogile partikular eta instituzional baino gehiagori egindako inkesta batean bildutako datuetan oinarritzen da, gaur egungo eta etorkizuneko ekonomiaren egoerari buruzko galderekin.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

AEB: KPI



Datuaren analisisia


Kontsumoko prezioen indize amerikarrak % 0,1 egin zuen gora ekainean. Urte arteko tasari begiratuta, igoera % 1,6koa izan zen, aurreko hileko % 1,8koaren ondoren. Azpiko inflazioak, energiaren eta elikagaien prezioak kanpo uzten dituenak, oso hegazkorak direlako, % 0,3 egin zuen gora iragan hilean, eta, iazko ekainarekin alderatuta, % 2,1 igo zen. Azpiko inflazioaren igoera 2018aren hasieratik izan den hileko igoerarik handiena izan zen. Batez ere arroparen eta erabilitako autoen prezioen igoerak eragin zuen adierazlearen hazkunde hori.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen du Lan sailak. Amerikako etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, "erosketa-saskia" izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

JAPONIA: INDUSTRIA-EKOIZPENA



Datuaren analisisia

Japoniako industria-ekoizpena % 2an kokatu zen maiatzean. Azken datua beherantz berrikusi bazen ere (% 2,3 aurreratu zen), datu sendoa da, apirileko hazkundera % 0,6koa izan baitzen eta aurreikuspenek % 0,7koa izango zela esan baitzuten. Autoen inbentarioen hazkundera, seguruenik salmenten gainera zerga aplikatu aurretik azken orduko erosketetara aurreratzeko, hobekuntza horren zati baten erantzulea da. Makinen ekoizpenaren hazkundeak ere lagundu zuen.

Adierazlearen azalpena

Industria-ekoizpenaren indizeak (IPI) herrialde bateko industria-sektorearen adierazgarri den enpresa multzo baten ekoizpenean emandako aldaketak neurtzen ditu. Hilero enpresei industria-sektorearen egoerari buruz egiten zaizkien galdetegiaren erantzunetatik lortzen dira datuak. Ekonomia baten ekoizpen-maila nola aldatzen den jakitea oso garrantzitsua da hazkundearen analisisia egiteko.

ASTEKO DATUEN PODIUMA

TXINA: KPI



Datuaren analisisia

Kontsumoko prezioen indizeak % 2,7 egin zuen gora ekainean, aurreko hilean bezala; hortaz, urteko mailarik gorenean dago. Aurreko hilean gertatu zen moduan, prezioen urte arteko igoera honen protagonista nagusiak elikagaiak izan ziren, % 8,3ko igoerarekin. Sektore honetan batez ere fruta freskoen prezioak nabarmendu ziren (urte arteko % 42,7ko igoera). Uzten gaineko «muturreko klimaren» eraginaz gain, 2018ko ekainean prezioak ohi baino baxuagoak izan zirelako ere azaldu daiteke igoera hau.

Adierazlearen azalpena

KPIa hileroko prestatzen da. Etxeek kontsumitzen dituzten oinarritzko zerbitzu eta ondasun multzoaren prezioen mailaren bilakaera erakusten du, “erosketa-saskia” izenarekin ezagutzen dena. Ez du produktuen prezioa adierazten, baizik eta batez beste haien balioa zenbat handitu edo txikitu den, ehunekotan adierazita. Balioaren aldaketak herrialdearen inflazioa zehaztuko du.

KASU DATORREN ASTEAN GAI HAUEI...

Data	Eremua	Adierazlea	Aurreik.
7/15	Txina	Urte arteko industria-ekoizpena	% 5.2
7/15	Txina	Urte arteko xehekako salmentak	% 8.5
7/15	Txina	Urte arteko BPGd	% 6.2
7/15	Estatu Batuak	Manufakturen inkesta New York	2.0
7/16	Erresuma Batua	Erregistratutako langabezia	--
7/16	Eurogunea	Balantza komertziala SA	--
7/16	Alemania	ZEW oraingo egoerari buruzko inkesta	4.0
7/16	Alemania	ZEW inkestaren aukerak	-23.0
7/16	Eurogunea	ZEW inkestaren aukerak	--
7/16	Estatu Batuak	Hileko txikizkako salmenta aurreratuak	% 0.2
7/16	Estatu Batuak	Hileko industria-ekoizpena	% 0.1
7/17	Erresuma Batua	Urte arteko KPIa	% 2.0
7/17	Eurogunea	Urte arteko KPIa	% 1.2
7/17	Estatu Batuak	Hileko etxebizitza berriak	% -0.7
7/17	Estatu Batuak	Liburu Beixa - Erreserba Federala	0
7/18	Japonia	Balantza komertziala	¥406.0b
7/18	Japonia	Urte arteko esportazioak	% -5.4
7/18	Japonia	Urte arteko inportazioak	% -0.2
7/18	Estatu Batuak	Hasierako langabezia-eskaerak	--
7/19	Japonia	Urte arteko KPIa	% 0.7
7/19	Estatu Batuak	Oraingo egoera Mich. U.	--
7/19	Estatu Batuak	Aukerak Mich. U.	--

BURTSA:

Burtsako indizeen balantzea nahiko negatiboa izan zen astearen bukaeran Europa eta Asian, eta positiboa, berriz, AEBetan. Jerome Powell-en agerraldia eta arlo komertzialean irekita dauden fronteek erakarri zuten inbertsiogileen arreta. Fed-en presidenteak hil honen bukaeran interes-tasak jaisteko aukerari atea ireki zion, baiezta zuenean gerra komertzialaren eta hazkunde globalaren inguruko zalantzek kalte egiten diotela oraindik hazkunde aukerei. Bide berari jarraitu zioten argitaratu ziren Fed-en minuteak, eta, ekonomiarentzako arriskuak desagertu ezean, laster pizgarri gehiago behar izango direla erakutsi zuten. EBZren aktak ere eman ziren argitara. Bertan, zerbait egiteko jarrera erakusten zen, hainbat aukeraren bidez: zorra erostea, tasak jaistea edo tasen igoera atzeratzea. Arlo komertzialean, Trumpek erabaki zuen Txinatik eta Mexikotik datozen metalei zenbait mugasari jartzea. Presidenteak aduanei zerga horiek aplikatzeko agindua eman zien, baina ez dakigu noiz sartuko den indarrean neurri hori. Bestetik, Iraneko atzerri-gaietako ministroak uranioa aberastearekin mehatxu egin zuen, AEBek bere herrialdeari ezarritako zigorrak kentzen ez bazituen. Horrek bi herrialdeen arteko tentsioa areagotu zuen. Hala ere, ikuspegi komertzialetik dena ez zen negatiboa izan. Azkenean, AEBek Iraneko atzerri-gaietako ministroari zigorrik ez jartzea erabaki zuten, eta AEB eta Txinaren arteko negoziazio komertzialei berrekin zitzaien, estatubatuarentzat eraikitzailea izan zen telefono dei baten bidez. Horrez gain, Trumpen gobernuak Huawei irarritako murrizketak nabarmen arinduko dituela iragarri zuen, eta debekua segurtasun nazionalarekin zerikusia duten produktuei besterik ez zaiela aplikatuko jakinarazi zuen.

ERRENTA FINKOA:

Fed-ek eta EBZk haien diru-politikak lasaitzearen aldeko mezua zabaltzen bazituzten ere, zor publiko subiranoan salmentak eman ziren. Hartara, hamar urterako bonu alemaniarrek 11 op egin zuen gora, -% 0,21eraino, eta epe bereko bonu espainiarren errentagarritasunak 20 op egin zituen gora, % 0,57raino; hortaz, arrisku-prima 77 puntutan kokatu zen. AEBetan, hamar urterako tasa % 2,12an kokatu zen, 9 op gora egin ondoren, aurreikuspenak gaintitu zituen Amerikako azpiko inflazioaren datuaren aurrean. Kreditu-merkatuan aldaketa gutxi.

DIBISAK / LEHENGAIK:

Fed-eko presidenteak interes-tasa estatubatuarrak hilaren bukaeran jaistearen inguruko esperantza elikatu ondoren, dolarrak atzera egin zuen. Lehengai dagokienez, petrolioaren prezioa % 4,33 hazi zen, ekaitz tropikal baten mehatxupean Mexikoko golkoko ekoizpena murriztearen eta zamaontzi britainiarrek Hormuzeko itsasartean izandako gorabeheraren ondorioz. Urrearen balioa, bestetik, % 1,18 igo zen, 1.415,75 \$/ontza mailaraino.

INDIZEAK	PREZIOA	%Aldaketa Ald Astean	% 2019
MSCI WORLD (Local)	1.693,42	0,18	17,48
IBEX 35	9.293,20	-0,45	8,82
DJ EURO STOXX 50	3.497,63	-0,86	16,53
DJ STOXX 50	3.181,43	-1,26	15,27
FTSE	7.505,97	-0,62	11,56
S&P 500	3.013,77	0,78	20,22
Dow Jones	27.332,03	1,52	17,17
NASDAQ	8.244,15	1,01	24,25
NIKKEI 225	21.685,90	-0,28	8,35
MSCI GORAKORRAK (Lo)	57.875,00	-0,93	8,34
MEXBOL	42.647,31	-1,75	2,42
BOVESPA	103.906,00	-0,18	18,23
SHANGHAI	3.069,43	-2,68	17,54
Errusia Rts Mosku	1.387,87	-0,78	30,18

Gobernuen	Maiaila Ald	Astean %Aldaketa	% 2019
ALEMANIA 2 URTE	-0,41	0,05	-0,17
ESPAINIA 2 URTE	1,85	-0,01	-0,64
AEB 2 URTE			
ALEMANIA 10 URTE	-0,21	0,11	-0,45
ESPAINIA 10 URTE	0,57	0,20	-0,85
AEB 10 URTE	2,12	0,09	-0,56
ALEMANIA 30 URTE	0,39	0,15	-0,49
ESPAINIA 30 URTE	1,58	0,26	-1,03
AEB 30 URTE	2,65	0,10	-0,37
Kreditu-spreada (op)			
MARKIT ITRX EUROPE 06/24*	49,33	-0,75	-39,04
MARKIT ITRX EUR XOVER	245,92	2,91	-107,77

Dibisak	Maiaila Ald	%Aldaketa Astean	% 2019
Dolarra / Euroa	1,13	0,42	-1,74
Yena / Euroa	121,62	-0,16	-3,24
Libera / Euroa	0,90	0,04	-0,27
% Aldaketa Ald. % 2019			
Petrolio (Brendt)	67,24	4,33	26,46
Urrea	1.415,75	1,18	10,39

Kutxabank Gestión SGIIC SAUk prestatu du agiri hau, eta horretarako, fidagarriak diren informazio-iturriak erabili ditu. Hala ere, ezin du ziurtatu bertan jasotako informazioa eta iritziak erabat zehatzak, zuzenak eta osoak direnik, eta ez du bere gain hartzen horren gaineko inolako erantzukizunik. Agiri honetan agertzen diren informazio eta iritziak edonoiz aldatu daitezke, aurretik horren berri eman beharrik gabe. Kutxabank Gestión SGIIC SAUk ez du agiri honen eta bere edukien erabilerak sortu ditzakeen kalteen gaineko erantzukizunik hartzen. Finantza-merkatuetan eragiketak egiteak arrisku handiak sortu ditzake, eta posizioa etengabe zaindu behar da. Txosten hau ez da eskaintza bat ez eta finantza-aktiboak erosi edo saltzeko eskaera bat ere. Agiri hau zu informatzeko besterik ez da, eta hirugarrenek ezin dute berregin edo banatu. Era berean, ezin da, inolako aitzakiapean, osorik edo zati bat argitaratu.